



**EBAZPENA, 2020ko ekainaren 9 koa, Hezkuntza Berriztatze zuzendariarena, zeinaren bidez ebatzen baita desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoriala duten eta 2019-2020 ikasturtean eskolatuta dauden eta ezohiko epean eskaera gauzatu duten ikasleen eskola-garraiorako banakako diru-laguntza deialdia.**

2019ko ekainaren 12ko Hezkuntzako sailburuaren Aginduaren bidez eskola-garraiorako banakako diru-laguntzetarako deialdia egin zen desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala duten ikasleentzat, baldin eta eskolatuta badaude etxebizitzaren arabera dagokien ikastetxe publikoan edo Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak esleitutako itunpeko ikastetxe pribatu batean eta ezin badute saileko eskola-garraioa erabili 2019-2020 ikasturtean.

Eskaerak aurkezteko epe orokorra amaiturik eta behin aztertu ondoren 2019ko azaroaren 7ko Hezkuntza Berriztatze zuzendariaren Ebazpenaren bitartez eskatutako laguntzak ematea edo ukatzea ebatzi zen.

Gerora, bertan zehazten diren inguruabarrak gertatzen direnean eskaerak aurkezteko eta emandako zenbatekoa zenbatzeko ezohiko epe bat irekitzen duen deialdiaren 8. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eskaera berria aurkeztu da.

Eskaera Aginduan xedatutakoaren arabera aztertuta, honakoa

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ezohiko epean aurkeztutako eskaerari eskola-garraioko banakako esleipenak ukatzea, ikasle eskatzaileak ez duelako desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorialarekin lotutako hezkuntza-premia berezirik, eta ez duelako betetzen Hezkuntzako sailburuaren 2019ko ekainaren 12ko Aginduaren 3. artikuluko 1.a zenbakian ezarritako baldintza, alegia, bizilekuaren, ibilbidearen edo hezkuntza-administrazioa esleitzearen arabera dagokion ikastetxean matrikulatuta egotea.

Bigarrena.- Ikasle eskatzailea eskolatuta dagoen ikastetxeko zuzendariari jakinaraztea honako Ebazpenaren edukia, interesdunari jakinaraz diezaion.

Hirugarrena.- Hezkuntza Berriztatze zuzendariaren 2019ko azaroaren 7ko Ebazpenaren II. eranskina aldatzea. Ebazpen horrek desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoriala duten ikasleentzako eskola-garraioko banakako esleipenen deialdia ebatzen du, 2019-2020 ikasturtean eskolatua.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Hezkuntzako sailburuordearen aurrean, jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 9n

Lucía Torrealdy Berruete,  
HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA



## II ERANSKINA / ANEXO II

ARABA:

Kodea/ Código	Ikastetxea Centro	Eskaerak Nº solicitudes	Arrazoiak Motivo
010254	CPES APOSTÓLICO SAN JOSÉ BHIP	1	<p>Desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorialarekin lotutako hezkuntza-premia berezirik ez duen ikaslea.</p> <p>Lurralde Ordezkaritzak berari adierazitako ikastetxean matrikulatu ez dalako (art. 3.1a).</p> <p>Alumno que no presenta necesidades educativas especiales vinculadas a discapacidad física, psíquica o sensorial.</p> <p>No estar escolarizado en el centro por señalamiento expreso de la administración (art. 3.1a )</p>